

# **Bilboko talde zuzentzailea XVI eta XVII. mende bitartean: aginpidea eta ondorengotza- estrategia aztergai 1630.eko konkordiar en arabera**

*Mikel Zabala Dr.*

Artikulu honetan XVI eta XVII. mende bitarteko Bilboko erakunde nagusienetako talde zuzentzailea lantzen da. Bertako kargudunak ezagutarazi ondoren, aginpidea eta ondorengotza estrategia aztergai dira. Azkenik, mende berrian talde zuzentzaile horrek izandako egokitzapen prozesua birplanteatzen da, Konkordiaren eraginezko testuinguruan.

## **La élite dirigente de Bilbao entre los siglos XVI y XVII: Sus bases de poder y estrategias de reproducción según la Concordia de 1630**

El presente artículo supone una aproximación al grupo dominante de las principales instituciones de Bilbao en el tránsito del siglos XVI al XVII. Tras identificar a sus miembros, se estudian sus bases de poder y estrategias de reproducción. A partir de todo ello, se reinterpreta el papel desempeñado por el Capitulado de Concordia en el proceso de adaptación de esas elites a las transformaciones de la nueva centuria.

## **Bilbao's elites in the 16th and 17th centuries: power base and strategies for self-reproduction in the context of the Agreement of Concord**

This article analyses the elites of the main institutions in Bilbao between 16th and 17th centuries. At first, their members are identified; then, it is made a study of their power base and strategies for reproducing themselves. Finally, the function of the Agreement of Concord in those elites' process of adaptation for the changes happened in the new centuries is rethought.

## 1. Sarrera

Aitzin Erregimengo Bizkaiko erakundeek oso arreta historiografiko desberdina jaso dute, nonbait. Jaurerriko erakunde orokorrei dagokionez, ikerketa ugari burutu dira, batez ere Foru Sistema bera desagertu ondoren. Aurreko lanak alde batera utzita, D. DE AREITIOK eta F. DE SAGARMÍNAGAK XIX. mende amaieratik aurrera paregabeko ahaleginak bete zituzten, erakunde hauen prozedurak argituz edota berauen arauak argitara emanez. Zalantzarik gabe, lan haiek, gaurregun ere, oso tresna baliogarriak dira<sup>1</sup>. Dena dela, gai honen heldutasuna XX. mendeko hirurogeita hamarrekoko hamarkadan iritsiko da, G. MONREAL irakaslearen doktoregoko tesiari esker<sup>2</sup>. Geroago, historia instituzionalaren berrikuntzak ikerketak bideratu ditu jakintza-arlo emankorretara, erakundeetako oinarri sozialak arakatzeko<sup>3</sup>. Bestalde, agiriak ezagutarazten ere ahalegin handiak bete dira garai berrietan<sup>4</sup>.

Oso bestelakoa da, berriz, Bilboko Udalaren egoera. T. GUIARDEK XX. mende hasieran bere lan eskerga plazaratu zuenetik, Hiribildu honek ia ez du ikerketa monografiko berriagorik ezagutu<sup>5</sup>.

Aginpidearen oinarri soziala izango da, hain zuzen ere, datozen orrietan landuko den gaia. Eraginkortasuna dela medio, analisia Bilboko bi erakunde nagusienetara murriztuko da: Udala eta Kontsuletxea<sup>6</sup>. Dena dela, ez dugu Bizkaiko Foru Aldundia erabat ahaztu behar<sup>7</sup>, 1630.eko Konkordia<sup>8</sup> hala edo nolako eragile izan baitzen, nonbait. Eta horixe da idazlan honen asmoa: Bilboko talde zuzen-

<sup>1</sup> D. DE AREITIO Y MENDIOLEA (1943), D. DE AREITIO Y F. DE SAGARMÍNAGA (1928) edota F. DE SAGARMÍNAGA (1892). Guztien arteko zehatzena izan zen azkenengo lan hau, tamalez, XVII. mendera arte baino ez zen luzatu.

<sup>2</sup> G. MONREAL CÍA (1974).

<sup>3</sup> Ik. P. MOLAS RIBALTA (1980: 9-18).

<sup>4</sup> Foru Sistemaren garaiko Batzar Nagusi eta Foru Aldundietako aktak argitara ematen M<sup>ra</sup>A. LARREA SAGARMINAGAK Y R.<sup>ma</sup> MIEZA MIEGEK (Dirs.)(1992) zuzendutako proiektua aipatu behar, 1999. urtean XVI. mendeko aktetako transkribaketak soilik kaleratu dira eta.

<sup>5</sup> Salbuespenak salbuespen: M. MAULEÓN ISLAREN tesia (1961), non Bilboko erakundeei buruz ezer gutxi ageri zen, edota P. FEJOO CABALLERORENA (1991), oso urte kopuru murrizta jorratzen zuena. Beste lan batzu, bestalde, kanpoko iturrietan oinarritu ziren begien bistako arrazoienatik: besteak beste, A.E. DE MAÑARICUA (1954) edota F.J. GUILLAMÓNÁLVAREZ (1980: 153-165). Jakina: M. BASASFER-NÁNDEZEN emaitzak (1971: 369-391 y 1975: 115-160) gai zehatz batzuetarako hurbilketak izan ziren soilik. Honen ildotik jarraituz, aipagarria da aspaldian ospatutako Bilboko historiari buruzko biltzar bat, non hizlaririk ez zuen iturri berririk erabili. Eskerrak azken bolada honetan egoera hobetzen ari den, argitaratu berriko Hiribilduaren 700 urteurrena ospatzeko antolatutako topaketetan azaleratu zen modura.

<sup>6</sup> Erakunde honetarako oraindik ere ezinbestekoa izaten jarraitzen du T. GUIARDEN idazlanak (1913).

<sup>7</sup> Gai honen testuingururako, M. ZABALA MONTOYA (2001 b).

<sup>8</sup> Agiri originala, sarritan erabilia, BFAA: AA: Batzar Nagusi eta Erregimenduetako 9. akta-liburua (1629/1638). Akordio honen garrantzia G. MONREAL CÍAK (1974: 136) argitu zuen.

tzaileak mende berriaren beharretara nola egokitu zen aztertzea, era beran aldaketa prozesu horretan Konkordiak betetako eginkizuna zehaztu nahian.

Egia esan gai hau aurrez landu nuen<sup>9</sup>, baina bertan ezagutarazitako ondorioek hemengoekin zerrikusi handiegirik ez omen dute. Izan ere, halako hartan ikerketa zabalago baten hasiera-hasieran zirriborratutakoak aurkeztu nituen<sup>10</sup>. Aurrekoak gaitzetsi baino komenigarriago deritzot, apaltasunez, hemen beste-lako ondorioak agertzea.

## 2. Bilboko talde zuzentzailea

### 2.1. Nortasuna eta ezkontza-estrategia

Lehenik eta behin, Bilboko talde zuzentzailearen analisiak, nahitanahiez, bi erakundeetako karguetako errepikapenak neurtu behar. Hona hemen nire emaitzak:

1. Taula: Bilboko Udalan eta Kotsuletxean izandako kargudunen izendapenak (1544-50/1660)<sup>11</sup>:

Bilboko Udala			Kotsuletxea		
Izendapenak	Kargudunak	Judikaturak	Izendapenak	Kargudunak	Judikaturak
1	280	280	1	80	80
2	172	344	2	33	66
3	91	273	3	28	84
4	57	228	4	17	68
5	37	185	5	13	65
6	15	90	6	12	72
7	13	91	7	11	77
8	8	64	8	6	48
9	0	0	9	6	27
10	2	20	10	3	30
11	0	0	11	3	33
GUZTIRA	675	1.575	GUZTIRA	209	650

*Iturriak:* Nik neuk osatutako taula da, beti ere Kotsuletxearen jatorrizko datuak T. GUIARDETIK (1913: I, 634-641) atera ditudala, eta Bilboko Udalarenak M. ZABALA MONTOYATIK (2001 a: 28-54). Kontrako-rik ez bada esaten, ondorengo estatistiketan ere beste horrenbeste.

<sup>9</sup> M. ZABALA MONTOYA (2000: 313-333).

<sup>10</sup> Gutxienez honela planteatu nuen garai hartan ere.

<sup>11</sup> Bilboko Udalaren kasuan hasierako puntua 1544. urtea da, non Erregidoretza guztiak beti-kotu ziren; Kotsuletzerako, berriz, 1550.a.

Bilboko Udalan Erregimenduko partaide guztiak zenbatu dira, Kotsuletxean Fielak eta Kotsulak bakarrik barneratu direlarik<sup>12</sup>. Bilboko Erregimenduaren kasuan 1559, 1565, 1580 eta 1584. urteetako datuak ez ditut. Era berean, XVI. mendeko bigarren erdialdeko hainbat urtetan ez ditut judikatura guztiak ezagutzen baina, noizbait, ordezeko kargudunak –ezagutzekotan– barneratu dira. Ezezagunak dira, bestalde, Kotsuletzeko 1555.eko datuak, eta 1562, 1572 eta 1586. urteetakoak ez daude osorik.

Kotsuletzeko errepikapenak Erregimendukoak baino handiagoak dira: batazbeste, 3,1 judikatura pertsona bakoitzeko; Udalan, berriz, 2,3 urte kargudun bakoitzeko. Azkenengo erakunde honetan hamar urtetik gora bi lagunek bakarrik eman zuten: Antonio Bilbao Tellaechek eta Martín Saenz de Larrínagak. Kotsuletxean, aldiz, kargudunik nagusienak Hortuño eta Juan del Barco, Juan Pérez de Ocariz, Pedro de Sojo, Fernando de Taborga eta Pedro de Villarreal ditugu. Aurreko datuen arabera, bi erakunde hauetako errepikapenak oso nabarmenak izan zirenik ez dago esaterik. Hala ere, bertan batzuk betetako nagusitasuna ulertzeko gizabanakoak banan banan zenbatu baino hobe dugu sendietan elkartu. Hona hemen emaitzak:

*2. Taula: Kotsuletxean aldi gehienetan azaldutako sendiak (1550/1660):*

<b>Sendia</b>	<b>Izendapenak</b>	<b>Sendia</b>	<b>Izendapenak</b>
Barco	35	Montiano	10
Echavarri	25	Nobia	16
Fano	17	Ocariz	11
Hormaache	22	Sabugal	10
Jugo	12	Sojo	10
Landaache	9	Taborga	12
Landaverde	11	Ugaz	20
Larrínaga	10	Victoria de Lecea	10
Lezama	20	Villarreal	18
Luengas	15	Zubiaur	11

<sup>12</sup> Aparteko kasuak izanik, Sindikoak eta Idazkariak baztertu dira, tauletako ezaugarriak nagusienak argiago nabarmentzeko. Martín de Larreak, adibidez, berrogeita bi urtez bete zuen Sindikatura; Gonzalo de Lopateguik, berriz, berrogei urtez Idazkaritza. Orokorrean, kargu hauek nolabaiteko izaera teknikoak omen zuten: ik. M. ZABALA MONTOYA (2000). Edozelan ere, oso aldaketa txikia eragin dute taulan Juan Bautista de Arbolanchak (1620.etik 1627.era bost aldiz Fiel edo Kotsul eta 1631.ean Sindiko izan zenak), Lope de Basurto Achak (1600/1606.eko Sindiko eta 1610.eko Kotsul) edota Martín de Larreak (1607/25 eta 1627/30.eko Sindiko, nola baita 1595 eta 1610.eko Kotsul ere) bakar-bakarrik bete zutelako karguren bat alboratutakoekin batera.

Begien bistan denez, hogei sendi hauek 304 kargu osatu zuten, guztien % 46,7a alegia<sup>13</sup>. Karguetako berriztapenak nabarmenak dira, Bilboko merkataritza eta oligarkizapenaren arteko erlazio zuzena agerian utziz.

Bilboko Udalarri dagokionez, hauexek dira datuak:

3. Taula: Bilboko Udalan aldi gebienetan azaldutako abizenak (1544/1660):

Sendia	Izendapenak	Sendia	Izendapenak
Adaro	22	Larrínaga	15
Arbolancha	16	Lezama	21
Barco	16	Liendo	10
Barrenechea	14	Luengas	10
Barraondo	10	Mendieta	12
Bilbao la Vieja	11	Nobia	19
Ceceyaga	13	Puente (de la)	11
Echavarri	18	Sarabia	13
Enderica	16	Taborga	14
Erquínigo	16	Tellaèche	19
Fano	17	Ugaz	22
Fuica	32	Victoria de Lecea	22
Hormaeche	21	Villarreal	23
Isasi	25	Zaldívar	10
Jauregui	16	Zamudio	23
Jugo	14	Zubiaur	20
Larrea	13	GUZTIRA	554

Aurreko gogeita hamairu abizenek judikatura guztien % 34,5a bete zuten. Bertako karguetako errepikatze maila Kontsuletzekoa baino zerbait motelagoa, beraz. Dena dela, Udala eta Kontsuletzeren artean erabateko sinbiosia dugu. Izan ere, bakarrik Sarabia familia ez da erakunde bietan agertzen. Baina familia horren kide nagusia izandako Pantaleón de Sarabia Doktoreak Hiribilduetako interesen alde argi eta garbi jokatu zuela ez da ahaztu behar<sup>14</sup>.

Ezkontza-estrategia endogamikoak, bestalde, sendi hauen elkarren arteko lotura estuak zehazten ditu:

<sup>13</sup> Barco familiaren nagusitasuna errazago uler daiteke 1565 eta 1593. urtebete bitartean Bartolomé del Barco Simón Ruizen zerbitzuan egon zela gogorarazten baldin dadugu. J.PH PRIOTTI (1997: II, 74-77).

<sup>14</sup> M. ZABALA MONTOYAN (2001 b: 96-102) adierazi zen modura.



## 4. Taula: Bilboko Udal eta Kotsuletzeko kargudunen ezkontzak (1544/1660):

<b>Karguduna</b>	<b>Emaztea</b>
Arana Zubiaur, Diego	Victoria de Lecea, M <sup>a</sup> Antonia
Bustanza, Bartolomé	Hormaeche, Marina
Díaz de Lecea, Simón	Victoria de Lecea, Agueda
Echavarri, Alejandro	Saenz de Barrenechea, Marina
Echavarri, Damián	Zubiaur, Severina
Echavarri, Mateo	Bilbao Tellaeche, Antonia
Erquinigo, Diego	Ocariz, Angela
Fano, San Juan	Ibáñez de Hormaeche, Mari
Hormaeche, Aparicio	1 <sup>o</sup> Ortiz del Barco, María
	2 <sup>o</sup> Ibáñez de Jugo, María
Hormaeche, José	Echavarri, Josefa
Hormaeche, Juan	Pérez de Luengas, María
Hormaeche, Martín	Larrínaga, Jacinta
Jugo Ezquerria, Juan	1 <sup>o</sup> Zubiaur, Antonia
	2 <sup>o</sup> Landaverde, María
Jugo Ezquerria, San Juan	Martínez Victoria de Lecea, Ana
Landaverde, Juan	Villarreal, María
Larrea Beurco, Juan Antonio	Victoria de Lecea, María
Larrea Ugarte, Martín	Larrínaga, Jacinta
Lezama Arana, Domingo	Ochoa de Jugo Ezquerria, Mari
Lezama, Antonio	López de Villarreal, Mari
Lezama, Baltasar	Recalde, Sancha
Nobia Abendaño, Pedro	Vélez de Echavarri, Luisa
Ortiz de Luengas, Felipe	Saracha, Marina San Juan
Ortiz de Saracha, Juan	Perez del Barco, María
Oyardo Aramburu, Pedro	Saenz de Sabugal, Teresa
Pérez de Ocariz, Juan	Pérez Oyardo, María
Saenz de Larrínaga, Martín	Ortiz de Saracha, María
Taborga Echavarri, Fernando	Sarabia, Luisa
Taborga, Fernando	Martínez de Echavarri, María
Tellaeche, Juan	Díaz de Villarreal Ariceta, M <sup>a</sup>
Victoria de Lecea, Diego	Echavarri Aperribay, Bárbara
Zubiaur Aperribay, Pedro	Ibáñez de Larrínaga, Mari

*Iturriak:* BAHF: NA ETA BFAA: NA.

Edozelan ere, aipatutako merkataritza handiaren nagusitasunak ez digu beste ondorio hau izkutatu behar: Bilboko Udal kargudunek oinarri sozial zabalago daukatela, azkenengo kide hauen eraginkortasuna edota garrantzia alde batera utzita.

Aztergai diren bi erakundeetako berriztapenetako bilakabideari erreparatuz gero, aurrez zirriborratutako ideiarene bat zuzentzeaz gain, bestelako egiaztapen interesgarriak azaleratuko dira.



Lehenik eta behin, bi erakundeetan –orokorrean– nahiko ordezkapen orekatuak direla nabarmendu beharra dago. Sarrerak eta irteerak antzeko mailetan mantentzen dira garai osoan zehar. Kargudun guztien herenak, gutxi gora behera, ez zuen sekula errepikatu. Bi erakundeetako bilakabidea edota erritmoetako aldiberekotasunak susmatu baino frogatu beharreko interesen konkomitant-

tzia isladatzen du, nonbait. Alderantziz ere, bien arteko ezberdintasun batzu ere adierazgarriak izan daitezke. Gogoratu beharreko lehenbiziko inflexio-puntua bi erakundeetan kargudunen kopuruetakoa murrizketa nabarmena izandako 1570.eko hamarkadan dugu. Honek aipatutako data horretan krisialdiaren hasiera adieraz lezake. XVI. mendeko larogeita hamarrekoko hamarkadan, berriz, talde zuzentzailearen berriztapen edo hedapen handia dago (hau da, hamarkada horretan irteera guztiak baino sarrera gehiago dago). Ikuspuntu honetatik, jantzigintzan aritutakoen aurkako auzia<sup>15</sup> ez omen zen kargu publikoetakoa bazterketa areagotzeko talde zuzentzailearen neurria izan, erakundeetako zabalpenari aurre egiteko tresna baizik. XVII. mendeko lehen urteetan bi erakundeek bilakabide desberdina erakutsi zuten. Kotsuletxean ez zen handik aurrera oligarkizapena ekidingo, merkataritza garai berean pairatzen ari zen krisialdiaren islada edo. Bilboko Udalan, berriz, oraindik ere zabalkuntza zenbait urtez mantenduko zen: izan ere, *agavillados* izeneko bezalako mugimenduek<sup>16</sup> aurrez aipatutakoaren antzeko irakurketa jaso dezakete. Hamargarreneko hamarkadaren bukaeran eta hurrengoan, azkenik, Erregimenduak bertan behera utziko zuen alde aurretik izandako jarrera: irteerek gora egin zuten, sarrerak murriztu ziren bitartean. Horren emaitza zuzena, beraz, oligarkizapenaren gorakada izan zen. Neurri batez, prozesu hori ogibide liberalek Udalan izandako murriztapenari lotuta dago, nonbait. Zerresanik ez: talde guzti hauek Gatz Estankoren Matxinadaren garaian<sup>17</sup> Bilboko Erregimenduaren kontra zuzendu zuten amorrua aurreko urteetako prozesuaren ezinbesteko ondorio ulergarria dugu.

## 2.2. Oinarri materialak

Kargudunen oinarri soziala aztertzean, Alkateek hainbat ezaugarri bereizgarri betetzen zituztela ohartarazi behar. Beste pertsonaia handirekin batera, beraiei zegokizkien ondasunik oparoenak. Adibide batzu adierazgarriak izan daitezke.

Mateo de Taborga errentadun izatera iritsitako merkatal jatorrizko bilakabidearen adibide paregabea dugu. 1647.ean Alkatea izango zenak 1632. urtean María de Arroyosekin ezkontzean 43.000 dukata eraman zuen. Diru kopuru hori honako ondare multzok osatzen zuten: 1.500 dukatatako Taborgaren oinetxea Villaescusan (honen etxaldea ere barne), 1.000 dukatatako mahastiak Portugaleten, 4.500 dukatatako Somera kaleko etxebizitza nagusia eta ondokoa, Urduñako Mugan 24.000 dukatatako *juro* delako ezarpena, 8.000 dukatatako amaren

<sup>15</sup> Zehazkiago M. ZABALA MONTOYA (2001 b: 112-115).

<sup>16</sup> J.C. AREIZAGA ET ALII (1988: 309-316).

<sup>17</sup> Gai hau sakontzeko, besteak beste, R.M<sup>a</sup> MIEZA MIEG (1991: 41-102) edota M. ZABALA MONTOYA (2001 b: 255-342).



legitima, eta 1.000 dukatatako bitxikeriak. Emaztegaiari emandako *arras* deritzonak 3.000 dukatatakoak izan ziren. Ezkontideak, bere aldetik, Begoñako leinuak lokarritzatutako ondarea eraman zuen: Begoñako jauregia eta zegokion etxaldea, Andra Mariko hamarrekoak, Begoñako Santo Domingoko etxebizitza eta honen etxaldea, Zallako dorretxea (honi zegokizkion errota, etxaldea, patronatuak eta gainerako errentak ere barne) edota Loizaga de Achuriagako jauregi eta honen etxaldea, eta hauei lotutako errota, burdinolak, mendiak eta gainerako errentak (azkenengo hauek garai hartan eta Erret Eginkizunari esker Francisco de Lezamiz eta Isabel de Loizagak jasotzen zituztenak). Aldiberean, zenbait ondare libre ere bazen: Gobeo San Pedro Longarreko oinetxea, etxaldea eta Longarreko errota; 4.000 dukata zentsutan eta beste horrenbeste Madrigo Alkabaletako *juro* izeneko ezarpenetan<sup>18</sup>.

Aurrez erakutsitakoa baliogarria izan daiteke, halaber, 1643.an Alkatetza betetako Fernando anaiaren kasuan. Berau Luisa de Sarabiarekin ezkondu zen 1633.ean. Senarrak Bilboko arieletan 10.000 dukatatako zentsua eta 7.640 dukata *juro* delako ezarpenetan eraman zuen. Emazteak, berriz, 7.500 dukatatako *juro* delako ezarpena Poza de Añanako Gatzagan eta beste 500 dukata ostilamendu eta bitxikeritan aurkeztu zuen<sup>19</sup>.

Juan de Barraicua Lizentziatuak alderantzizko egoeraren berri ematen digu. Ezohizkoagoa izanda ere, ez omen zen erabat ezezagunik. Antonio de Barraicua sendagilea eta María Ibáñez de Basurtoen seme bakarra izanik, abokatu honek 1625. urtean Martín de Belaroren alaba zen Ana María de Arriolarekin adostutako ezkontza-agirirako jaraunspen oparoa bildu zuen. Barraicua honek la banatutako 12.400 dukata aurkeztu zuen: 2.500 dukatatako norbere bizitzarako etxeak, 1.000 dukatatako Artekalako etxeak, 200 dukatatako Atalayako etxebizitzetako gela, 1.500 dukatatako Abandoko Gabarrako baserria (meategiak eta lur-sailak barne), 600 dukatatako Begoñako Basabeko baserria eta honen etxaldea, 2.100 dukata zentsutan, beste 1.800 ordainagiri edota dirutan, 800 dukata ostilamendutan, beste horrenbeste bitxikeritan eta azkenengo 300ak liburutan. Agiri hartako *arras* deitutakoak 800 dukatatakoak izan ziren. Ezkontideak, bere aldetik, 4.600 dukata eraman zuen: 3.000 dirutan, 1.000 ostilamendutan eta 600 dukata zentsutan<sup>20</sup>. Ezkontza honen bidez, Barraicua Bilboko merkataria garrantzitsu baten alabarekin lotu zen. Harrigarritzat jo dezakegu bi ezkontideen arteko ondare kopuru desorekatua, baina, zalantzarik gabe, geroagoko Kontsuletzeko sarrerari esker azal daiteke hori. Bilboko Erregimenduan betetako eginkizuna laburra izan zen: 1635.eko Alkatetza, alegia. Dena dela, Jaurerriaren zerbitzurako abokatu modura ere aritu zen.

<sup>18</sup> BAHF: NA: I: Juan Pérez de Burgoa (Bilbo), 4726 ps (1632.IV.18).

<sup>19</sup> BAHF: NA: I: Juan Pérez de Burgoa (Bilbo), 3117 ps (1633.XI.17).

<sup>20</sup> BFAA: Bestelakoak: Villarías, 36. L, 5. E, 19. znbk. (1625.VI.13).

Andrés López de Barrenechea, Erret Kontseiluetako abokatua eta 1616.eko Alkatea Bilbon, aurrez esandakoaren beste adibidea dugu. Barrenkale kaleko dorretzeko titularra Hernando Ortiz de Allende merkatari bilbotarraren alaba zen Mari Ortiz de Allenderekin ezkondu zen. Senargaiaren ondasunak Bilboko etxeak ziren, emaztegaiarena, berriz, 4.000 dukata (3.500 diru eta zentsutan, gainerakoa etxeko ostilamendutan)<sup>21</sup>.

1599. urtean Bigarren Alkatea eta 1603 edota 1621.ean Alkate titularra izandako Simón Díaz de Lecea merkataria Agueda Victoria de Lecea Anuncibay lehengusinarekin ezkondu zen. Une hartan Díaz de Leceak honako ondasun hauek bildu zituen: Bilboko Areatzan dorretxe erdia, Begoñako Zabalako baserria eta honen etxaldea, gaztainadia Zamudion, hamazortzi abelburu –behiak, zehazki– Artunduagan,azienda-xehe zehazgabea Arrigorriagako Careagan, 400 dukatatako zentsua eta 4.000 dukata dirutan; ezkontidearentzako *arras* delakoa 500 dukatatakoak izan zirela. Emaztegaiak 2.500 dukata aurkeztu zuen: 2.200 zentsutan, gainerako gutzia ostilamendutan<sup>22</sup>. Aipatutakoaren anaia, 1610. urtean Alkatetza bete zuena, Marta Mariaca de Ibarrarekin esposatu zen 1592.ean. Antonio Victoria de Leceak oinetxeak lokarritatutako hobekuntza eraman zuen ezkontzean; zenbatekoa izan zen jakiterik ez badugu ere, emaztegaiak *arras* delako modura jasotako 600 dukataren bidez susma daitekeelarik. Ezkontideak Ibarra Lizentziatuaren maiorazkoa, Ojastroko patronatoa eta 9.706 dukatatako *juro* izeneko ezarpenak ekarri zituen<sup>23</sup>. Akordio honen atzeko asmo errentaduna ez dago zalantzan jartzetik.

Domingo de Lezama Arana 1605. urtetik betetako Armadako Hornitzailearen ogibidez baliatu ahal izan zen 1607.ean Bilboko Alkatezari eusteko. Kargudun honen ondarea aniztuko zen Mari Ochoa de Jugo Ezquerraren ezkontzaren bidez. Emakume hau Mari San Juan de Lezamarekin esposaturiko Antonio de Jugo merkatariaren alaba zen, eta ezkontza 1597.ean ospatu zen, erret bizibidea betetzen hasi aurretik, alegia. Agian horrexegatik Lezamak Somera kaleko etxebizitzak, Zaballbideko baratza, Begoñako baserria Artaganen eta Lezamakoa Arechavaletan (bakoitza bere etxaldearekin) baino ez zituen ezkontzara eraman; emaztegaiak diru, ostilamendu eta *juro* delako ezarpenetan 5.000 dukata bildu zuen bitartean<sup>24</sup>.

Pedro de Isasik, hogeita hamasei urtez Armadako Ordaintzaileak, 1606.ean Juana de Uríbarriarekin ezkontza-agiria bete zuen. Pagatzaileak 18.500 dukatata-

<sup>21</sup> BHP: NA: I: Juan Cacho de Herrera (Bilbo), 3298 ps (1606.II.16).

<sup>22</sup> BHP: NA: I: Gaspar de Villela (Bilbo), 3877 ps (1597.IX.17). Díaz de Lecea hauxe izan omen zen Victoria de la Torre leinuari buruzko genealogiaren idazlea, ustez Victoria de Lecea familiaren apartekoa. Izan ere, Martín Victoria de Lecearen semea izanik, abizen hau ez zuen erabili, nonbait. CONDE DE URQUIJO (1927: 87-88).

<sup>23</sup> BHP: NA: I: Gaspar de Villela (Bilbo), 3874 ps (1592.IX.27).

<sup>24</sup> BFAA: AJ, KORR: 2235 ps, 38 znbk. (1597.XI.14).

ko honako aberastasunak bildu zituen: 5.000 dukatatako Abandoko Gasteluon-  
do baserria eta etxaldea, 800 dukatatako Allende la Puente auzoko etxea, 10.200  
dukata dirutan eta onartutako ganbio-letretan eta beste 2.000 ostilamendutan.  
Emaztegaiak, berriz, 500 dukatatako *arras* delakotan jaso eta 7.400 dukatatako  
honako ondasun hauek eraman zituen: 600 dukatatako balioa zuten Askaoko  
etxea eta etxaldea, 600 dukata bitxikeri eta ostilamendutan, eta 6.200 dukata  
dirutan<sup>25</sup>. Hemen betetako ogibideari esker aberastutako erret funtzionarioaren  
adibidea dugu. Ezkontza honen bidez Indietako iharduera komertzialak zirela  
medio dirututako merkatari baten alabarekin lotu zen<sup>26</sup>. Izan ere, ez zion mer-  
kataritzari muzin egin eta Kontsuletxean sartu zen 1617.ean. Bere ogibideak  
Udal Erregimenduan barneratzeko erabateko gaitasuna bermatzen ziola, Bilbo-  
ko Alkatetza bete zuen 1611.ean. Are gehiago: hiru urte lehenago lanbidearen  
eginkizun guztiei aurre egin beharraren aitzakiaz erret agiria eskuratu zuen zoz-  
ketetatik kanpo gelditzeko. Urtebete batzu geroago betekizuna Antonio de  
Zubiaur koinatuari besterenganatuko zion, Ana bere alabarekin esposatuko  
zenari ogibidea dote modura emateko erret mesedea erdietsi ondoren<sup>27</sup>.

Aurreko deskribapeneko zenbait ezaugarri beste agintari bilbotarretan ere  
aurki daitezke. Aparicio de Uribe hainbat urtez idazkaritza lanetan ibili zen  
Napoliko Erregeorde izandako Osunako Dukearen esanetara edota Katalunia-  
ko Erregeordetza betetako Feriako Dukearen aginduetara. Handik bueltan,  
María de Basurto Acharekin ezkondu zen. Idazkariak 6.953 dukata ekarri zuen,  
emaztegaiak 2.000 dukata jaso zuelarik<sup>28</sup>.

Etorkin berrien aberastasunak merkatariak berehala esku hartzen dituzte,  
hartu-emanen estualdia moteldu eta beraien estatusa mantendu ahal izateko.  
Antz handiko adibideak biderka daitezke.

Lezamako jatorria zuen Martín de Hormaèche Kapitainak Indietako egonal-  
dian aberastasun handiak bildu zituen<sup>29</sup>. Bilbora itzultzean 50.000 dukatatik  
gorako jabetzari esker pertsonaia dirudunenetarikoa bilakatu zen. Orduan Mar-  
tín Saenz de Larrínaga merkataria alaba zen Jacintarekin esposatu zen.  
Ezkontza-agirian azaldutakoaren arabera, Kapitainaren ondarea honakoa zen:  
23.272 dukata *juro* izeneko ezarpenetan, 3.000 dukata dirutan, 3.963 dukata  
ordainagiri eta zorretan, 1.600 dukata ostilamendu eta bitxikeritan, gainerako  
20.000 dukata Peruko Potosín izandako etxe, meategi eta tresneriatan. Kopuru  
honi ezkontideari *arras* delako modura emandako 1.500 dukata gehitu behar.

<sup>25</sup> BAHF: NA: I: Pedro de Mendia (Bilbo), 7271 ps (1606.VIII.3).

<sup>26</sup> BAHF: NA: I: Gaspar de Vilella (Bilbo), 3874 ps (1592.VIII.3).

<sup>27</sup> SAO: GIA: 1074 ps.

<sup>28</sup> BFAA: Bestelakoak: Villarías, 36. L, 5. E, 18. znbk. (1624.II.4).

<sup>29</sup> Potosín Anaiarteko Alkate, Prokuradore Orokor, Agoazil Nagusi, Alkate, Korregidoreorde edota Infanteriako Kapitaina izan zen. J. GARMENDIA ARRUEBARRENA (1989: 175).

Azkenengo honek, bere aldetik, Allende la Puente auzoan kokatutako etxeak, 3.038 dukata zentsutan, beste 1.600 dirutan eta 200 dukata soinekotan eraman zituen<sup>30</sup>. Bikote honen desorekak harrigarria eman dezake. Baina, agian, bi ezkontideen artean ez zen horren tarte handiegirik egon. Izan ere, honela Hormaeche gaitasun ekonomiko nabarmeneko merkatarien familia bilbotar nagusienetarikorekin lotu zen. Nahiz eta Alkatetzarik sekula ez bete, Martín Saenz de Larrínaga hamasei aldiz izan zen kargudun Bilboko Erregimenduan edota Kontsuletxean. Artziniegako jatorria zuen Juan Ortiz de Saracha merkatari bilbotarraren alaba zen Mariarekin izandako bere lehen ezkontzara Larrínagak Somerako hainbat etxe, Zabalbidekoak eta Larrinagako baserria ezezik (bakoitzari zegokion etxaldea ere barne), 6.800 dukata *juro* delako ezarpenetan, beste 200 zentsutan eta 500 dukata dirutan eraman zituen. Emaztegaiak 3.000 dukata-tako dotea aurkeztu zuen (2.500 dukata ostilamendutan, gainerakoa dirutan), eta jasotako *arras* delakoak 1.000 dukatatakoak izan ziren<sup>31</sup>.

Sarritan Bilboko Erregidoreen kasuetan Alkatetzatik hurbileko maila ekonomikoak agertzen dira. Honek Erregimenduko karguetako erakargarritasun handiaren berri ematen du, nik uste.

Burdinezko merkataritzari esker aberastutako Marcos de Urtusasutegui gordexolar etorkina Petronila de Agurto Gastañagarekin ezkondu zen. Horrela, bildutako ondasun kopurua 19.000 dukatatakoa izan zen. Emaztegaiak, *arras* delako moduko 500 dukata ezezik, beste 2.900go dotea jaso zuen: 1.000 dukatatako Bilboko Enparantzako etxebizitza, Perun hildako Domingo de Agurto osabaren heredentzia bezala eskuratzeko 1.500 dukata eta beste 400 ostilamendutan<sup>32</sup>. Ezkontza-agiria 1606. urtean sinatu eta hurrengo urtean Urtusaustegui inoiz berriro beteko ez zuen Erregidoretza lortu zuen.

Maila xumeagoan izanda ere, aurreko eredu errepika daiteke beste etorri berrien kasuetan. Balmasedako sorterría zuen Pedro de Liendo merkatariak diru, ostilamendu eta bitxikeritan 9.000 dukata bildu zuen –*arras* delako beste 1.000 dukata alde batera utzita– Iñigo de Trauco merkatariaren alaba zen Petronilarekin ezkontzeko. Honek 2.800 dukatatako dotea eraman zuen: 300 dukata balio zuten Begoñako Ibarsusiko baserria eta etxaldea, beste 2.000 dirutan eta gainerakoa ostilamendu eta bitxikeritan<sup>33</sup>.

Aurrez azaldutako beste egoera batzu maila honetan ere gertatu ziren. Pedro de Sabugal Amezaga Kontsuletzeko merkatariak San Juan de Amezagako maiorzakoa aurkeztu zuen ezkontzan: urtero 300 dukatatako errenta ematen zuen Zurbarango dorretxea, urte bakoitzeko 60 dukatatan alokatutako Artekaleko

<sup>30</sup> BAHF: NA: I: Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5011 ps (1632.II.16).

<sup>31</sup> BFAA: AJ, KORR: 596 ps, 10 znbk. (1597.III.24).

<sup>32</sup> BAHF: NA: I: Juan Cacho de Herrera (Bilbo), 3298 ps (1606.III.19).

<sup>33</sup> BAHF: NA: I: Martín de Mallona Zabala (Bilbo), 5591 ps (1598.VI.7).

etxebizitzak, 200 dukatatako Artekaleko orubea eta beste 400go zentsua. Horrez gain, ondasun libreak ere eraman zituen: Zurbarango lokarriaren etekin guztien erdia, 1.000 dukata zorretan, beste 85 zentsutan, 58 dukatatako urteko errenta San Nicolasgo etxe eta baratzetan, edota 12 dukatatako alokairua Askaoko etxeetan. María de Salcedo ezkontideak *arras* delako modura 1.000 dukata jaso eta *juro* izeneko ezarpenetan inbertitzeko 5.000 dukatatako dotea bildu zuen dirutan<sup>34</sup>.

Felipe de Arbieto Orue errentadunak Francisca del Camporekin ezkontzean hainbat lokarri aurkeztu zuen: Diego de Orue, Diego Ortiz de Orue edota María de Arbietorenak, hain zuzen, nola baita zentsuaren bidez 800 dukataren zorra zeukan Juan de Arbietorena ere. *Arras* deitutakoak 1.000 dukatakoak izan ziren. Emaztegaiak 6.000 dukata dirutan eta beste 2.000 ostilamendutan eraman zuen. Baina nabarmentzekoa da ezkontza-agirian aipatutako 6.000 dukata horiek errenta lukurarietan ezartzea adostu zela. Baldintza honek, zalantzarik gabe, ezkontzaren sakoneko helburua argitzen du. 1637.ean Erregidoretza eskuratzeak aurreko urtean sinatutako kontratu honekin zerrikusirik izatea posible da, nonbait<sup>35</sup>.

Ezkontza-agiriaren lekukotasunez, Martín Saez de Arana untzigilea ondare multzo honen titularra agertzen zen: Basocoecheko dorretxea eta Abandoko etxe berria zein etxaldea, Abandoko Iturrietako baserria, urtero 18 dukatatako alokairua ematen zuten hiru etxebizitza pare Aguirre eta Bilbao la Vieja auzoan, beste bi etxebizitza eta hiru denda pare jabekidetzan, basetxea eta etxaldea Zabalbiden, urtebeteko 90 dukatatako errenta produzitzen zuten lur-sailak Granadako Motrilen, urtero 80 anega gari jasotzekoa zen Ibaizabalgo Uharteko errota, Itsasoko Hamarretako 24.000 dukatatako *juro* delakoa, beste 180tako zentsua eta 400 dukata dirutan. Agiri hartako *arras* deitutakoak 1.000 dukatatakoak izan ziren. Agustina de Aperribay ezkontideak 6.500 dukata eraman zuen, 6.000 dirutan eta gainerakoa ostilamendutan<sup>36</sup>.

Edozelan ere, orokorki, Bilboko Udalaren karguetan 10.000 dukatatik beherako doteak nagusi dira, legezko gutxienezko 1.000 dukatatik gorakoak izanda ere.

1593. urte inguruan San Juan de Jugo Ezquerria Ana Martínez de Victoria de Lecearekin esposatu zen. Senargaiak lokarritatutako ondasun hauek eraman zituen: Dendarikaleko etxe nagusia, Abandoko Artachuko baserria eta 7.000 dukata *juro* deitutako ezarpenetan. Aldiberean emaztegaiak 500 dukata *arras*

<sup>34</sup> BAHF: NA: I: Martín Fernández del Campo (Bilbo), 3590 ps (1621.VIII.10).

<sup>35</sup> BAHF: NA: I: Martín Fernández del Campo (Bilbo), 3595 ps (1636.VIII.23).

<sup>36</sup> BAHF: NA: I: Diego de Zamudio (Bilbo), 4024 ps (1606.X.29).

delako bezala jaso eta 3.000 dukata aurkeztu zuen (2.500 *juro* izeneko ezarpe-  
netan, gainerakoa etxeko ostilamendutan)<sup>37</sup>.

Lope de Sertuchak 1.000 dukatatako ondarearen jabea dugu 1592. urtean. Honi 1591.eko Alkatea izandako Pedro de Agurto Gastañagaren alaba naturala zen Anaren ezkontzaren bidez eskuratutako 800 dukata –600 dirutan eta beste 200 ostilamendutan– gehitu behar zaio<sup>38</sup>. Ez dirudi bikote hau gehiegi aberastu zenik. Hurrengo belaunaldian Domingori 1.000 dukata dirutan eman zitzaizkion Juana García de Zubiarekin ezkontzeko. Emaztegaiak, bere aldetik, antzeko ondasun kopurua aurkeztu zuen: 700 dukatatako balioa izanik 200 dukatatako hipotekari aurre agin beharreko Harategi Zaharra kaleko etxebizitzak eta beste 500 dukata dirutan<sup>39</sup>.

Agustín de Villarreak 1601.eko Urteberri egunean Marina de Echavarríarekiko ezkontza-agiria bete zuen. Berak 6.400 dukatatako ondare multzoa osatu zuen: 1.600 dukatatako Bilboko Areatzan kokatutako hainbat etxe, 500 dukatatako zentsua, beste 2.500 dirutan, 1.000 dukatatako bitxikeriak eta gainerakoak salgai eta ordainagirietan. Emaztegaiak 4.170 dukatatako *juro* delako ezarpena, beste 1.066 dirutan eta 800 dukata bitxikeri eta ostilamendutan batu zituen<sup>40</sup>. Nahitanahiez, bikote honen kasuan merkatal iharduerak orientabide errentadun garbiaren esanetara gelditu ziren.

Nicolas de Landecho merkataria endogamia bitxiaren adierazlea da, 1635.ean Martín de Landecho Zamudioko apaizaren alaba naturala zen Mari Cruzekin ezkontza-agiria finkatzerakoan. Emaztegaiak, bestalde, hamabi urte besterik ez zuen. Landechok 1.000 dukata dirutan eta 200 dukatatako *juro* deitutako ezarpena eraman zuen, *arras* delakoa 300 dukatatakoa izan zela. Horren truke, ezkontidearen aldetik 3.000 dukata dirutan ematekoa zen<sup>41</sup>.

<sup>37</sup> BFAA: AJ, KORR: 1544 PS, 27 znbk. (1593.I.30). Domingo anaiaren jaraunspenak auzia, non gauregun ezagututako ezkontza-agiria gordetzen den, eragin omen zuen. Ik. A. BASANTA DE LA RIVA (1927: 231-232).

<sup>38</sup> BFAA: AJ, KORR: 1 PS, 31 znbk. (1592.VIII.9).

<sup>39</sup> BAHF: NA: I: Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5002 PS (1607.X.21). Ezkontidea Francisca de Gastañagak –abizena kontutan hartu– lehen ezkontzan izandako alaba zen, Kontsuletxeko merkataria eta Bilboko Udal Erregimenduko karguduna izandako Francisco de Liendorekin esposatuta une hartan.

<sup>40</sup> BAHF: NA: I: Francisco de Olazarán (Bilbo), 4285 PS (1601.I.1).

<sup>41</sup> BAHF: NA: I: Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5014 PS (1635.VII.16). Azkenik, ezkontza bertan behera gelditu eta hurrengo urtean Mari Cruz de Landecho moja sartu zen Gurutzeko komentuan. BAHF: NA: I: Juan Pérez de Burgoa (Bilbo), 3119 PS (1636.I.14). Era berean, elizgizonak Martín Ortiz de Landecho beste semea ere gizarteratu zuen Antonio Arteaga Zamudio Armadako Ikuskariaren iskribau modura.

### 2.3. Ondorengotza

Kontsuletxeko zerrendan agertutako sendi nagusi guztietatik abizen kopuru erdia baino gehiago desagertuko zen XVII. mendeko bigarren erdialdean. Garrantzi handirik gabeko datutzat har liteke, alabaina ez da posible, garai hartan aipatutako erakunde komertzialak guztiz kontrako joera zeukan eta<sup>42</sup>. Hor- tik inferi beharreko ondorioa zera da: bilbotar merkatarari ohien orientabide profesional berriak.

Taborga familiak horren adibide garbia dugu. Portugaleteko jatorria zuen Fernando de Taborgak, merkatal iharduerei esker aberastu ondoren, 1624. urte- an Mateo eta Fernando semeentzako maiorazko bana sortu zituen<sup>43</sup>. Berauek eragin handiko abizenekin lotu eta aitzindariaren ogibidea baztertuko zuten.

Echavarri sendian ere, aurreko mendean irabazitako etekinak zirela medio, merkatal hartu-emanak bertan behera geldituko ziren. Diego de Echavarriren seme eta oinordekoa izandako Martín Pérez izenekoak Belaustegui leinuarekin batu, Catalina Pérezekin ezkontzean, eta merkataritza utzi zuen. Zerresanik ez: hurrengo gizaldian beste horrenbeste gertatu zen, Pedro Vélez Calatravako abitu- ja jaso zuelarik<sup>44</sup>.

Pedro de Larrínagak, Juan Ortiz de Saracha aititeak sortutako lokarriaren oinordekoak, eta Baltasar de Arechaga Kontsuletxeko merkataria- ren alaba zen Antoniarekin esposatuta, merkatal iharduera- k baztertu zituen halaber errenta- duna izatera pasatzeko<sup>45</sup>.

Diego Victoria de Lecea Bárbara de Echavarrirekin esposatu zen. Ezkontza zela kausa, ezkontidearen ondarea, 24.000 dukatatakoa, lokarritzatu zen. Handi- k aurrera aitaren merkatal orientabidea galduko zen. Oinordekoa, María Anto- nia, Diego de Arana Santiagoko zaldun-ordeneko kidearekin ezkondu zen. Nobleziarenganako erakargarritasuna hurrengo gizaldian ere azaleratuko zen, Martín semeak Calatravako abitua jaso zuen eta.

Jugo sendian gizonezkoak iraungi ziren, emakumezkoak handiki desberdi- netako familiekin esposatuz. Domingo de Jugoren alaba zen Angela Domingo Ochoa de Irazagorriá Armadako Ikuskariarekin ezkondu zen. Hurrengo belau- naldian Antoniok Santiagoko Gurutzea jaso zuen. Aurrekoaren izekoa zen Mari

<sup>42</sup> Hona hemen Kontsuletxeko merkatarien kopuru- etako bilakabideari buruzko estatistika:

<b>Urte kopurua</b>	1525/50	1550/75	1575/1600	1600/25	1625/50	1650/75
<b>Kideak</b>	256	314	283	129	126	171

*Iturria:* T. GUIARD (1913: I, 168-174 eta 505-509).

<sup>43</sup> BFAA: AJ, KORR: 1444 PS, 40 znbk.

<sup>44</sup> Ik. J. PH PRIOTTI (1996: 86-88).

<sup>45</sup> Testamentuaren erreferentziarako, BFAA: AJ, KORR: 3523 PS, 5 znbk. (1655.XI.19).

Ibáñez Aparicio de Hormaecherekin ezkondu zen. Berauen ondorengoen artean Aparicio –Armadaiko Hornitzailea izango zena, oinetxeko jaraunsea zen Agueda de Recalderekin ezkondu eta Santiagoko abitua jantziko zuen Francisco –aurrekoaren anaia– nabarmendu ziren<sup>46</sup>.

Juan de Landaverde Kongsuletzeko merkatariak, zentsu multzo dezentearen jabetza izanik, testamentuan oinordekoentzako enkanteetan diru-ekarpenik ez besterengantzeko aholkatzen zuen<sup>47</sup>. Izan ere, berauek merkataritzan utzi eta haietariko batek, Juan izenekoak, Santiagoko abitua bereganatu zuen 1633. urtean.

Familiaren lokarriaren titularrak zen Sebastián de Villarreal Josefa de Berriz Gamboarekin esposatu zela, nekazal eremuko jauntxo bilakatu. Geroago Juan Bautista semeak Santiagoko abitua jantziko zuen 1681.ean<sup>48</sup>.

#### 2.4. Aberastasunak finkatuz: maiorazkoak

Ikuspuntu ekonomiko hutsetik maiorazkoa belaunaldiz belaunaldi ondare multzoaren jaraunspena bermatzeko baliabide juridikoa zen, zatigarritasunaren mehatzua baliogabetu zela. Gai honi buruzko kopuru zehatzik gabe izanda ere, neure eritziz, aztertutako garaian lokarriak biderkatu ziren. Izan ere, prozedura ezin egokiagoa zen garaiko krisialdiari aurre egiteko, are gehiago Hiribilduetako legeria erreparatuz gero. Dena dela, ez dut uste gorakadaren azalpen bakarra horixe izan zenik. B. CLAVERO sinestekotan, maiorazkoa *sensu lato* ulertutako nobleziaren tresna izan zen<sup>49</sup>. Merkatariak errentadun bilakatzeko paregabeko baliabidea izan zen, beraz<sup>50</sup>. Joera honen adibide batzu aipatu dira aurreko orrietan. Baina askoz kasu gehiago izan ziren.

1537. urtean ihardunbide militarri esker Martín Ximénez de Bertendona Jeneralak sortutako maiorazkoan Belostikaleko dorretxea, Dendarikale eta Allende la Puente auzoko etxeak, nola baita Abandoko Iturizargo oinetxea ere barneratzen ziren. Gainera, 1621.ean Gasteizko Itsasoko Hamarretako 1.427 dukatatako *juro* izeneko ezarpena gehitu zitzaion. Jakina, garai hartan horren titularrak eta Santiagoko abitua zeukan Martín de Bertendona Jeneralak Bilboko merkatarien sendi nabariko kidea zen Catalina de Fanorekin lotuta zegoen<sup>51</sup>.

<sup>46</sup> A. BASANTA DE LA RIVA (1927: 57-58 eta 230-235), aurreko aipamen gehienetako iturburua da.

<sup>47</sup> BAHF: NA: I: Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5009 PS (1630.I.19). Cf. BFAA: AJ, KORR: 3349 PS, 10 znbk.

<sup>48</sup> Senide xeble honi buruzko hainbat berrietarako, E. RUIZ DE AZUA (1990: 27-36).

<sup>49</sup> B. CLAVERO (1974: 275).

<sup>50</sup> Lur Lauan indarrean zegoen legeria hedatzeko proposamena, Konkordiako zirriborroan ageri zena, behin betiko testuan deuseztatu zela gogora bedi.

<sup>51</sup> Cf. M. LAMBERT-GORGES (1985: 162).



Antzeko testuingurua agertzen da Recalderen maiorazkoaren kasuan. 1540. urtean Juan Martínez de Recalde Armadako Ikuskariak sortutako lokarri honek Harategi Zaharreko etxeek, Allende la Puente auzoko hiru basetxek eta labeak, beste etxe batek Sendejan edota berrehun mahastik, besteak beste, osatzen zuten. Gorabehera korapilatsu asko gertatu eta gero (ondorengotza zenbait aldiz iraungi zen eta), maiorazkoa azkenik Aparicio de Hormaeche Hornitzailea eta Agueda de Recalderen semea zen Franciscok –Santiagoko abitua jantzi zue-  
nak– jaso zuen<sup>52</sup>.

Pedro de Nobia Castillok ere maiorazkoa gauzatu zuen 1590. urtean. Bertan Nobiarene oinetxea eta baseliza, Barrenkaleko dorretxea eta 25.000 dukata inguru balioa zuten zentsu eta *juro* izeneko ezarpenak barneratu ziren. Lehenbiziko ondorengoak aurreko belaunaldiaren merkatal iharduerak mantendu zituen, nahiz eta María de Abendaño Bilbaorekin ezkondu. Edozelan ere, Kotsuletxe-ko judikaturak beteko zituen azkenengo famili burua izan zen, nonbait<sup>53</sup>.

Ermuako jatorria zuen Juan de Bustinza Kotsuletxe-ko merkataria ere 1597. urte inguruan ondarea lokarritzatu zuen, besteak beste, hiribildu hartako hainbat lur-sail, Begoña edota Artekale eta Somera kaleetako zenbait etxe, nola baita 2.000 dukata bitxikeritan ere finkatzen zuena<sup>54</sup>.

1610. urtean luzatutako testamentuaren bitartez, Martín de Ugaz Hormaeche honako ondasun guzti hauek lokarritzatu zituen: Deustuko Luxarrako oinetxea; Ugascoa, Archanda edota itsasadarraren ertzean lekutatutako bost base-  
rri eta etxaldeak; 4.000 dukata Itsasoko Hamarretako *juro* delako ezarpenetan; beste 1.000 dukata inguru *Lanzas Mareantes* deitutako Bizkaiko Diruzaintzaren gaineko ezarpenetan; 353 dukata hainbat zentsutan; zehazgabeko abelburuak; etab.<sup>55</sup>

Jatorriz zein edukinaz ezezagunagoa izanda ere, XVII. mendeko erdialdean Arbolancharen maiorazkoaren titularra Ignacio de Asurduy Arbolancha dugu Agustín de Montiano Izusorbe merkataria-  
ren alaba zen Mariárekin ezkondu<sup>56</sup>.

---

<sup>52</sup> J. YBARRA Y BERGÉ (1967: IV-I, 194-195). Abizenetako ordena eraldatzeko usuarioa maiorazko-  
ak sortzean ezarritako arauak ohi ziren. Dagokigun kasuan, Coscojales abizena sartu omen zen.

<sup>53</sup> M<sup>a</sup>A. LARREA SAGARMINAGA Y R.M<sup>a</sup> MIEZA MIEG (1988: 557-594).

<sup>54</sup> BFAA: AJ, KORR: 3507 PS, 1 znbk.: Juan de Bustinzak (1597.VI.17) eta honen alarguna izandako  
María Pérez de Garita Bergarak (1605.VII.21) egindako testamentuak. Egia esan, ondare multzo  
osoa kopuru hauek baino askoz balore handiagokoa zen. Izan ere, Garita Bergararen ezkontzara-  
ko 11.400 dukatatako ondasunak aurkeztu zituen. J.PH PRIOTTI (1996: 269).

<sup>55</sup> BFAA: AJ, KORR: 591 PS, 18 znbk. (1610.III.19).

<sup>56</sup> J. YBARRA Y BERGÉ (1967: IV-I, 220-221).

## 2.5. *Hauteskundeak kontrolpean*

Puntu honetan Bilboko Erregimenduko karguei eusteko asmoz legaltasuna saihestuz erabilitako hainbat prozedura jorratuko dira. Análisi hau kargudun batzuk eta besteek izandako balizko eraginkortasun maila desberdinen adierazlea –egotekotan hori– izan daiteke. Aldiberean, kargu bakoitzari zegokion eskuragarritasuna konprenitzeko edota mailakatzeko ere erabil daiteke, nik uste.

### 2.5.1. AUZOTARTASUNA ETA ONDORENGOTZA

Ezaguna denez, justiziako karguetan parte hartu ahal izateko bete beharreko gutxienezko hamar urtetako auzotartasunaren araua bertan behera gelditu zen behin baino gehiagotan<sup>57</sup>.

#### 5. *Taula: Auzotartasunari buruzko araudia bete ez zuten Bilboko Udal kargudunak (1544/1660):*

<b>Izen/abizenak</b>	<b>Egiaztageria</b>	<b>Kargua</b>
Albehar Salazar, Juan	1589	1597 Erregidore
Cardoso Buergo, Juan	1609	1617 Erregidore
Castañeda Isla, Juan	1653	1633 Erregidore
Fernández del Campo, Martín	1625	1615 Erregidore
Fernández del Campo, Pedro	1625	1614 Erregidore
Jugo, Antonio	1590	1573 Erregidore
Olarte de Orozco, Gaspar	1613	1613 Erregidore
Pache, Hernando	1571	1575 Erregidore
Pinedo, Juan	1598	1602 Erregidore
Puente Urtusaustegui, Juan	1600	1603 Erregidore
Puente Urtusaustegui, Lope	1600	1602 Erregidore
Saenz de Elorduy, Miguel	1598	1604 Erregidore
Santa Coloma, Tomás	1661	1636 Erregidore
Sarralde, Juan	1604	1612 Erregidore
Taborga, Fernando	1602	1609 Erregidore

*Iturria:* M. BASAS FERNÁNDEZ (1958) genealogietarako.

Taula honen datuak ez daude osorik, nonbait: egiaztageriak irauñ duten kasuak baino ez dira kontutan hartu, nahiz eta, galdutakoak gehituz gero, aurre-

<sup>57</sup> M. ZABALA MONTOYAN (2000) aurreratu zen bezala.

ko zerrenda nabarmen handituko zela susmatu. Bilboko Udalak onartezinezko eskuhartzetzat jotzen zuenaren aurrean erakutsitako tinkotasuna ez dirudi bate-re logikorik bertako kargudun guztien ehuneneko bata inguru soilik defendatzeko, are gehiago berauek –ustez– izandako garrantzia eskasa erreparatuz gero (batek ere ez zuen Alkatetza lortu, haietariko bostek urtebete batez baino ez zutela ihardun). Izan ere, Bilboko judikaturarik nagusia bete zuten kanpoan errotutako jauntxo batzuk sekula ez zuten egiaztagiririk aurkeztu. Eta ez naiz bakarrik Gatz Estankoaren Matxinadaren garaian Alkatea izandako Juan Alonso de Idiaquezi buruz hitz egiten, baizik eta baita 1617/18 eta 1625 urteetan Alkatetza betetako Luis eta Gregorio Ortiz de Matienzo ere<sup>58</sup>. Guzti honen atzean jokoan zegoena kargudunen familiak zabaltzeko gaitasuna zen. Ikuspuntu honetatik, Bilboko Udalak, gai honen inguruan eskumen osoa izatearen defentsari eutsiz, bere aurreikuspenak babestu zituen, auzotartasuna kanpotarrak barneratzeko edota baztertzeko balio zezakeelako ustetan.

### 2.5.2. BERRAUKETARAKO GUTXIENEZKO HUTSUNEA

Bilboko Erregimenduan kargurik errepikatu aurretik bi urtez itxaron beharra zegoela jakina da. Idazkaritzaren salbuespena alde batera utzita, ezbetetzea egoera ezohizkoa zein adierazgarria da<sup>59</sup>. Naziantzoko Gregorio Deunaren ordezkaria zen Juan de Madariagak 1600 eta 1601. urteetan Erregidoretzak bete zituen, ardoetako estankoa zela medio Hiribildua eta Kofradia aurrez-aurreko norgehiagokaren testuinguruan. Pantaleón de Sarabia Doktoreak ere Erregidoretza errepikatu zuen 1613/14 garaian. Jakina: garai hartako azpijokoak Erregidoretzetan soilik suertatu arren, ondorengo urteetakoak deigarriagoak izango ziren Alkatetza bera ere errepikatuko zen eta. Hala gertatu zen Luis Ortiz de Matienzo eta Juan Alonso de Idiaquezen kasuekin, 1617/18 edota 1633/34.ean, hurrenez hurren.


### 2.5.3. KARGUETAKO ALDIBEREKOTASUNA

Bilboko talde zuzentzaile komertzialaren bi zutabe nagusienak izandako Bilboko Erregimendua eta Kontsuletxea tartekatu zuten bertako partaideek, baita maiz askotan aldiberean ere (erakunde hauen karguetako pilatze mailaren

<sup>58</sup> Aitak Erret Idazkaritza bete zuen Italian. Bi kide hauek Santiagoko abitu bana jaso zuten. 1625. urte inguru Milanen eta Madrilén finkaturik, hurrenez hurren. SAO: OSKB: 618 ps.

<sup>59</sup> Juan de Arratia eta Martín de Barraondok hala egin zuten hautatzeko prozedura berezari berria zela (1553.en urtean betetako Erregidoretzak 1555.ean errepikatu zituzten). Ez dakit garai hartan prozedura berria erabat finkaturik ez egoteagatik edo gertatu ote zen; egia esan, bi kide hauek sekula ez ziren Erregimendura berriz itzuli.

erabateko ondorio logikoa, bestalde). Aldiberekotasuna<sup>60</sup> merkatarri nagusien usuario arrunta izan zen, nonbait:



*Oharrak:* Grafikoa agertzen den urtea bi judikaturen arteko aldiberekotasunaren adierazlea da, Kotsuletxeako hautaketetako data alde batera utziz. Azkenengo erakunde honetarako, bestalde, Fielak eta Kotsulak baino ez dira kontutan hartu.

Begien bistan denez, Bilbon izandako oligarkizapen prozesua areagotu zen XVII. mendeko lehenbiziko herenean. Gorakada hau, orokorrean, merkatarrien kopurua gutxiagotu eta, bereziki, Kotsuletxeako kideak murriztu izanagatik azal daiteke, nonbait. Judikatura horietako hutsuneak betetzeko asmoa izanik, onartu ez zirenen protestak, beraz, guztiz ulergarriak dira. XVI. mende amaierako eta XVII. mende erdialdeko beherakadak, berriz, bi erakundeetako personalaren berriztapenetako susperraldiekin bat datoz. Bestalde, XVII. mendeko hogeita hamargarreneko hamarkadan izandako murriztapena Gatz Estankoren Matxinadan gertatutakoaren ondorioz ala 1630.eko Konkordiaren osteko Bilboko talde zuzentzailearentzako aurreikuspen berrien eraginez –Foru Aldundiko judikaturetan parte hartzeko gaitasuna, alegia– izan zen seguru ez dakit. Edozelan ere, berrogeigarreneko hamarkadako datuek talde zuzentzaileak karguetako pilatze prozesuaren finkapena argitasunez isladatzen dute. Honela, Bilboko erakundeetako oligarkizapenaren aurkako erresistentziaren emaitza zein izan zen ez dago zalantzan jartzerik, nik uste.

<sup>60</sup> Bateriaezintasuna betearaztea ezohizkoa izan zen Bilbon. Gainera, talde zuzentzaileak bere interesetara egokitu zuen. Izan ere, aldiberekotasunaren debekuaren aitzakiaz, 1608.ean Udal Erregidorea eta Kotsuletxeako Sindikoa zen Martín de Larrea Sindikatura uztera behartu zuten. Egia esan, kanporaketaren atzean Domingo Martínez de Isasi handikiarentzako Bilboko harresiko horma baten salmantan izandako iruzurkerian Larrearen partaidetzagatik hartutako mendekua baino ez zen izan.

### 3. Talde zuzentzaileak bat egiteko prozedurak

#### 3.1. Ondorengotza-estrategia

Hasiera batetan harrigarria eman baldin badezake ere, Bizkaiko Lur Lauko jauntxoekin ezkonduko Bilboko talde zuzentzailearen nahiko portzentai txikia izan zen. Txikia baina esanguratsua aldiriberean. Hona hemen horietariko ezkontza deigarrienetarikoak:

#### 6. Taula: Bilbo talde zuzentzaile eta Bizkaiko Lur Lauko goi mailako taldeen elkarren arteko ezkontzak (1600/1660):

Senarra	Emaztea
Arauco, Martín	Ochoa de Urasandi, María
Asua, Diego	Herrera, Mari San Juan
Barrenechea, Fernando	Múxica, María
Cacho de Herrera, Juan	Saenz Inglés, Marina
Ceceyaga, Juan Bautista	Urasandi, Mariana
Hormaeche, Martín	Larrínaga, Jacinta
Hormaeche, Nicolás	Urasandi, María
Lopategui, Gonzalo	Saenz Inglés, Catalina
Martínez de Albinagorta, Juan	Zubialdea, Catalina
Nobia, Pedro	Abendaño, María
Ortiz de Asua, Juan	Díaz de Villarreal, Mari
Pérez de Echavarri, Martín	Vélez de Belaustegui, Catalina
Sabugal, Pedro	Butrón y Múxica, Catalina
Sierralta, Francisco	Puente (de la), María
Taborga, Mateo	Arroyos, María
Urasandi, Pedro	Taborga, Bárbara
Usparicha, Juan	Múxica, Marina
Villarreal, Sebastián	Berriz, Josefa
Vizcarrondo, Rodrigo	Larrínaga, Mariana

*Iturriak:* BAHP: NA eta BFAA: NA.

Ustekko paradoxa hau berehala konpreni daiteke nekazal jauntxo eta Bilbo-ko merkatarien familien arteko batuketa prozesu hau oinetxeetako titularrak eta ahaide handiak ezezik ahaide txikiak ere kontutan hartu behar baitira. Zuzeneko loturak ezohizkoak izan ziren eta sendi gutxi batzu ditugu horren adibide. Hauetariko bat, Urasandi familia.

1626. urtean Juan Bautista de Ceceyaga Pedro de Urasandiren alaba zen Mariana de Urasandirekin ezkondu zen. Ceceyagak honako ondasun hauek

aurkeztu zituen: Bilboko Dendarikaleko eta Durangoko errebaletako etxeak, Abandoko baserria, 500 dukatatako zentsua, beste 500 bitxikeritan eta kopuru berbera etxeko ostilamendutan. Pedro de Urasandik 4.000 dukatatako dotea eman zion alabari, *arras* deitutakoak 500 dukatatakoak izan ziren bitartean<sup>61</sup>. Alde bakoitzaren ondarea baino akordio honen oinarri politikoa nabarmentzekoagoa da, Bizkaiko nekazal eremu eta Hiribilduen arteko integrazio prozesuan bi sendi hauek partaidetza handia izan zuten eta<sup>62</sup>. Aurrez aipatutakoaren beste alaba bat Nicolás de Hormaeche Kontsuletxeko merkatarari nabarmenarekin esposatuko zen. Are gehiago: hurrengo gizaldian ere azaleratuko zen joera hiritarra, Pedro de Urasandi Bárbara de Taborgarekin ezkondu baitzen.

Bilborenganako hurbiltasunak Hiribildu honen erakargarritasunarekin zerri-kusirik izan zuela ez dago baztertzerik. Aldikotasuna aldakorra izanik ere, antzeko zerbaite esan daiteke Bilboko inguruetako beste hainbat familiaren kasuetan: Basurto, Barraicua, etab. Butrón y Múxica leinua bera ere Bilboko merkataritzarekin lotu zen. Izan ere, 1607. urtean Pedro Sabugal de la Puente merkatarari bilbotarrak Catalina de Butrón y Múxicarekin –Antonio Gómez González Santiagoko zaldun-ordeneko kidearen alabarekin, alegia– gauzatu zuen bere hirugarren ezkontza. Sabugalek 12.000 dukata aurkeztu zuen (*arras* delakoak 1.000 dukatatakoak izan zirela), ezkontideak 1.500 dukata besterik ez zeraman bitartean. Jakina: ustezko desoreka hau abizenari esker berdindu omen zen<sup>63</sup>.

### 3.2. *Abitu militarrek*

1630.eko Konkordiaren xedapen batek ohorezko gizarte maila gorena eta abitu militarren arteko baliokidetzara arautu zuen. Erabaki honek aurreikuspen zabalak eskeini zizkien balizko hautagaiei, Jaurerriko Ahalduen Nagusia izateko aukera gauzatzuz. Berauek, noski, ez zuten abagadunea alferrik galduko.

Hona hemen XVII. mendeko abitueta bilakabidea:

<sup>61</sup> BAHF: NA: I: Juan Pérez de Burgoa (Bilbo), 3111 ps (1626.XI.5).

<sup>62</sup> Hemen aipatutakoaren aita izandako Ceceyaga Lizentziatua 1609.eko Bizkaiko Jaurerriko blokeen arteko konponbide instituzionalaren proiektua zirriborrazteko ordezkaria izan zen. Pedro de Urasandi –ezkontidearen neba– Konkordian gauzatuko ziren 1628/30. urteetako egitasmoetan hartu zuen parte.

<sup>63</sup> BAHF: NA: I: Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5002 ps (1607.VI.8).



*Iturriak:* SAO: OSKB: 618 PS (1625), ARCHIVO HISTÓRICO NACIONAL (Ed.)(1976), V. VIGNAU Y F. UHAGÓN (1903: a y b), E.J. LABAYRU (1901: V, 627-630).


Saila oso-osorik dagoenik zalantzeta jar daiteke. Hala ere, orekatua da, nolabait, abitueta espedienteak ezezik, bestelako iturri osagarriak ere erabili direlako, lehenbiziko urteetako balizko hutsuneak baretzeko asmoz. Jaurerriko pertsonak aukeratu dira, une horretan Bizkaian bizi ziren ala ez kontutan hartu gabe: Balmasedako jatorria zuen Diego Hurtado de la Puente edota Mungiakoa zen Juan de Villela Madriren agertzen ziren 1625. urtean, esate baterako.

Serie honetan lau aldi ezberdin daitezke argitasunez. 1615. urtera arte abiturik jasotzea ezohizkotzat jo dezakegu. Garai horretan mesedea zerbitzu zehatzen ordainezkoa da (gehienbat zerbitzu militarrei eskerrekoa). Aipatutako datatik aurrera eta hurrengo hogeita hamar urtez –ezegonkorra izanik ere– abitueta berehalako gorakada ezagutuko da, Gaztelako Koroan jarraitutako joerarekin bat edo<sup>64</sup>. Aldi horretan bizkaitarrek urte bakoitzeko batazbesteko lau abitu jaso zuten. Handik aurrera, berriz, mesedeak murriztu ziren erdira jaisteko. XVII. mendeko azkenengo bi hamarkadetan joera berriro eraldatuko zen, garaiko batazbestekoa hiru abitu ingurutakoa izatera heltzeko.

1630. urtea baino lehenagotik abitueta eskari gehienek Hiribilduetako sorterrria dutela nabarmentzekoa da<sup>65</sup>.

<sup>64</sup> M. LAMBERT-GORGES (1985: 84) Santiagoko abituaren kasuan soilik. Dena dela, hauxe izan zen garaiko abiturik hedatuena.

<sup>65</sup> M. LAMBERT-GORGES (1985: 79).



Iturria: Supra, 4. Grafikoa.

Zutabe hauetako kopuru osoak aurreko datuekin guztiz bat ez datozela ohartarazi nahi dut, mesedearen data eta jasotzailearen jatorria –biak batera– asmatzea ez zaidalako kasu guzti-guztietan posible izan. XVI. mendeari buruzko datuak urriak dira oso; handik inferitzeko edozelango ondorioaren baliogarritasunik, beraz, zuhurtasunez hartu beharko. Hala ere, garai horretarako zera esan daiteke: Bilbotik kanpoko jasotzaileak, ustez, nagusi izan zirela. Dena dela, egoera hori eraldatuko zen 1630.etik aurrera: alde aurretik Bilbok abitu guztien laurdena jasotzen bazuen ere, ondorengo urteetan herena izatera pasatuko zen.

Abituak jasotzen Hiribilduetako nagusitasuna argiago egiatzen du honako grafiko honek:



Iturria: Supra, 4. Grafikoa.



Abitu guztietako bi herenak Hiribilduetara bideratu ziren. Are gehiago: Bilbok, Urduñak eta Balmasedak, hirurak batera, Bizkaiko guztietako % 48a betetzen zuten. Ikuspuntu honetatik, Konkordiaren hasierako zirriborroaren aurka-ko erresistentzia –non zaldun-ordeneko kideei Ahaldun Nagusia izateko gaitasuna bermatzen zitzairen, behin betiko bertsioan eraldatuko ez zen xedarran-akordio honen edukina ahalik eta mesedegarrien lortzeko jokabidetzat hartu behar dugu, nonbait.


1630. urtetik aurrera zaldun-ordeneko kide askok parte hartuko zuten Bizkaiko Foru Aldundian. Bilbotarrak, batik bat. Juan Pérez de Múxica eta Catalina de Aperribayren semea zen Juan de Múxicak 1634.ean. Diego Victoria de Leceak, berriz, 1654.ean. Lau urte geroago Domingo Ochoa de Irazagorria Armadako Ikuskaria eta Angela de Jugoren semea izandako Antonio de Irazagorriak. Urte berean ere sartu zen Prudencio Aparicio de Nobia, Pedro Aparicio eta Luisa Vélez de Echavarriren semea. Juan de Sarabia eta María de Larrearen ondorengoa zen Pedro de Sarabia, azkenik, 1660.ean. Data horretatik aurrera zerrenda erraz luza daiteke; baina aipatutako ideia egiaztatzeko beharrezkoa denik ez dut uste.

#### 4. Ondorioak

Aurreko orrietan azaldu denez, iharduera komertzialek jasandako estualdiak merkatarik bilbotarren eginkizunetan eragin zuen. Krisialdiaren aurrean jokabide desberdinak izan ziren; besteak beste, aurrez irabazitako mozkinak diru-ekarpenetara desbideratu ziren, ondarea lokarritzatu zen edota kanpoko sendiekin zein Indietan edo administrazioan aberastutakoekin batzeari ekin zioten. Hala ere, estrategia guzti hauek merkatarien asmoak asetzeko gauza izan ez zirenez gero, aspalditik irrikatutako Bizkaiko Foru Aldundiko karguei heldu zieten. Lanbide izanda ere oinetxeari lotutako kaparetasuna eta Ahaldun Nagusia izateko gaitasunaren arteko ustezko kontraesana –merkatalgoaren bidez eskuratutako berehalako aberastasunak kontutan har bitez– merkatarien alde konpondu zen abitu militarrei esker. Prozedura honen bitartez (nola baita maiorazkoen sorrera bezalako bestelako estrategiatatik ere) orientabide errentaduna finkatu zen. F. BRAUDEL-en hitzetan *burgesiaren traizioa* dugu hau<sup>66</sup>. Testuinguru honetan Bizkaiko goi mailako taldeen elkarren arteko identifikazioa burutu zen, jatorria alde batera utzita. Nekazal jauntxoek iharduerek ere bidea erraztu zuten. Indarrean zegoen legaltasunak ogibiderik betetzea eta kaparetasuna izatearen arteko aldiberekotasuna arautzen zuelarik, nekazal handikiek bestelako iharduerari ere eutsi zieten. Burdinolekako produkzioaren banaketak edota Indietarako itsasontziren baten jabetzak benetazko merkatarik profesionalik mugak moteldu zituzten.

<sup>66</sup> F. BRAUDEL (1953: II, 104-110).

1630.eko Konkordiaren bidez etekinik handienak eskuratu zituztenak Bilbo eta Bizkaiko Hiribildu nagusienak izan ziren. Partaidetza zabaleko erakundea zen Batzar Nagusiak Jaurerriaren gaitasun arauemailea mantendu izanak Foru Aldundiaren etengabeko gorakada nekez ezkutatu ahal izan zuen, nonbait. Foru Aldundi hori Batzar Nagusiaren ordezkoa izanik ere. Aurrerantzean gobernuko kargurik nagusienak Bilboko goi mailako taldeentzat eskuragarriak izango ziren. Hiribilduetako Gaztelako legeriaren jarraikortasunak beste horrenbeste adierazten zuen, merkatal iharduerak baztertu arren –larrialdiari aurre egiteko aukera aprobeztatzeagatik edota jauntxo bihurtzeko desiragatik–, gizarte mailako arrakastaren oinarri materialak zeintzu izan ziren ez omen zutelako ahaztu.



1630.eko Konkordiaren bidez etekinik handienak eskuratu zituztenak Bilbo eta Bizkaiko Hiribildu nagusienak izan ziren. Partaidetza zabaleko erakundea zen Batzar Nagusiak Jaurerriaren gaitasun arauemailea mantendu izanak Foru Aldundiaren etengabeko gorakada nekez ezkutatu ahal izan zuen, nonbait. Foru Aldundi hori Batzar Nagusiaren ordezkoa izanik ere. Aurrerantzean gobernuko kargurik nagusienak Bilboko goi mailako taldeentzat eskuragarriak izango ziren. Hiribilduetako Gaztelako legeriaren jarraikortasunak beste horrenbeste adierazten zuen, merkatal iharduerak baztertu arren –larrialdiari aurre egiteko aukera aprobeztatzeagatik edota jauntxo bihurtzeko desiragatik–, gizarte mailako arrakastaren oinarri materialak zeintzu izan ziren ez omen zutelako ahaztu.

## 5. Inprimaturiko Iturriak eta Bibliografia

- ARCHIVO HISTÓRICO NACIONAL (Ed.) (1976): *Sección de Órdenes Militares. Índice de expedientillos y datas de hábito de Caballeros en Santiago, Calatrava, Alcántara y Montesa* Madril: Ministerio de Educación y Ciencia
- AREITIO Y MENDIOLEA, D. (1943): *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya* Bilbo: Bizkaiko Aldundia
- AREITIO, D.; Y SAGARMÍNAGA, F. (1928): *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya* Bilbo: Bizkaiko Aldundia
- AREIZAGA, J.C.; ET ALII (1988): “Los agavillados de 1607: sobre los antecedentes urbanos de la Matxinada de la Sal” In *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskal Herriaren Historiari buruzko biltzarra. III. Alea. Ekonomia, Gizartea eta Kultura Antzínako Erregimenean* Donostia: Txertoa
- BASANTA DE LA RIVA, A. (1927): *Nobleza vizcaína. Estudio genealógico de pleitos sobre vizcainía y mayorazgos del Señorío* Valladolid: Imprenta Casa Social Católica
- BASAS FERNÁNDEZ, M. (1958): *La Sección de Genealogías del Archivo Municipal de Bilbao* Madril: Asociación de Hidalgos a Fuero de España
- BASAS FERNÁNDEZ, M. (1971): “Un antagonismo secular: el de bilbaínos y vizcaínos” In *I Semana de Antropología Vasca* Bilbo: L.G.E.V.
- BASAS FERNÁNDEZ, M. (1975): “La institucionalización de los Bandos en la sociedad Bilbaína y Vizcaína al comienzo de la Edad Moderna” In *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los Siglos XIV y XV* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- BRAUDEL, F. (1953): *El Mediterráneo y el Mundo Mediterráneo en la época de Felipe II* Mexiko: F.C.E.
- CLAVERO, B. (1974): *Mayorazgo. Propiedad feudal en Castilla. 1369-1836* Madril: Siglo XXI
- CONDE DE URQUIJO (1927): *Más noticias genealógicas* Donostia: Nueva Editorial
- FEIJÓO CABALLERO, P. (1991): *Bizkaia y Bilbao en tiempos de la Revolución Francesa* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, J. (1989): “Diccionario biográfico vasco. Méritos, servicios y bienes de los vascos en el Archivo General de Indias” In *Eusko Ikas-kuntza. Ataleko Koadernoak. Historia-Geografia* 12
- GUIARD, T. (1905/6): *Historia de la Noble Villa de Bilbao* Bilbo: L.G.E.V (1971.eko berrargitalpena)
- GUIARD, T. (1913): *Historia del Consulado y Casa de la Contratación de la villa de Bilbao. Volúmen I* Bilbo: L.G.E.V. (1972.eko berrargitalpena)
- GUILLAMÓN ÁLVAREZ, F.J. (1980): “Tensiones sociales en el municipio de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII” In *Cuadernos de Investigación Histórica* 4
- LABAYRU, E.J. (1897/1901): *Historia General del Señorío de Bizcaya* Bilbo: L.G.E.V. (1971.eko berrargitalpena)
- LAMBERT-GORGES, M. (1985): *Basques et navarrais dans l'Ordre de Santiago (1580-1620)* Paris: C.N.R.S.

- LARREA SAGARMÍNAGA, M<sup>a</sup>A. Y MIEZA MIEG, R.M<sup>a</sup> (1988): “Las cuentas de la Casa de Novia de Salcedo (Notas para el estudio de unas funciones sociales” In *Estudios de Geografía e Historia* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea
- LARREA SAGARMÍNAGA, M<sup>a</sup>A. Y MIEZA MIEG, R.M<sup>a</sup> (Dirs.)(1992): *Legislación Foral del Señorío de Vizcaya (1528-1877). Registros de los actos legislativos dispuestos por las Juntas del Señorío, sus Regimientos y Diputaciones Generales* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia-Deustuko Unibertsitatea
- MAÑARICUA, A.E. (1954): *Las Ordenanzas de Bilbao de 1593* Bilbo: Udala
- MARTÍNEZ RUEDA, F. (1994): *Los Poderes Locales en Vizcaya. Del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal (1700-1853)* Bilbo: E.H.U.
- MAULEÓN ISLA, M. (1961): *La población de Bilbao en el Siglo XVIII* Valladolid: Unibertsitatea
- MIEZA MIEG, R.M<sup>a</sup> (1991): “La machinada del Estanco de la Sal: una hipótesis de interpretación” In *Ernaroa* 6
- MOLAS RIBALTA, P. (1980): “La historia social de la administración” In *Historia Social de la Administración Española. Estudios sobre los siglos XVII y XVIII* Bartzelona: C.S.I.C.
- MONREAL CÍA, G. (1974): *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el Siglo XVIII)* Bilbo: Bizkaiko Aldundia
- PRIOTTI, J.PH. (1996): *Los Echavarri: mercaderes bilbaínos del Siglo de Oro* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- PRIOTTI, J.PH. (1997): *Bilbao et le commerce européen au XVIe siècle* Toulouse: Université de Toulouse II-Le Mirail (argitaragabeko doktoregoko tesia)
- RUIZ DE AZUA, E. (1990): *Pedro Bernardo Villarreal de Berriz (1669/1740). Semblanza de un vasco precursor* Madril: Castalia
- SAGARMÍNAGA, F. (1892): *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya desde el Reinado de Felipe II hasta la mayor edad de Isabel II* Bilbo: Amigos del Libro Vasco (1988.eko berrargitalpena)
- VIGNAU, V. Y UHAGÓN, F. (1903 a): *Indice de pruebas de los caballeros que han vestido el hábito de Santiago desde 1501 hasta la fecha* Madril: Imp. Viuda e Hijos de M. Tello
- VIGNAU, V. Y UHAGÓN, F. (1903 b): *Indice de pruebas de los caballeros que han vestido el hábito de Calatrava, Alcántara y Montesa desde el siglo XVI hasta la fecha* Madril: Imp. Viuda e Hijos de M. Tello
- YBARRA Y BERGÉ, J. (1967): *Escudos de Vizcaya* Bilbo: Villar
- ZABALA MONTOYA, M. (2000): “Bilboko erakundeak 1590 eta 1650. urtebete bitartean: oligarkizapen maila ta gatazka. Jatorrizko iturriak landu aurreko lehen hurbilketa” In *Haciendo Historia: Homenaje a M<sup>a</sup> Ángeles Larrea* Bilbo: E.H.U.-U.P.V.
- ZABALA MONTOYA, M. (2001 a): “Hutsunea bete nahian. Bilboko Udal kargudunak (1547-1798) (I)” In *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* LVII-2 (2001-1)

ZABALA MONTOYA, M. (2001 b): *Conflictividad y recomposición socio-institucional en Bizkaia en el contexto de la época de las alteraciones* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (argitaragabeko doktoregoko tesia)

## **6. LABURDURAK**

AA: Atal Administratiboa.

AJ, KORR: Atal Judiziala, Bizkaiko Korregimendua.

BAHP: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala.

BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.

E: Erregistro.

GIA: Gerra eta Itsas Armada.

I: Iskribau.

L: Liburu.

NA: Notal Atala.

OSKB: Ogasun Saileko Kontseilu eta Batzarrak.

PS: Paper sorta.

SAO: Simancasgo Artxibo Orokorra.